

KUKUA ETA ZOZUA

Kukua zan arbola
 gain goichuan jarri,
 nairikan bereganuntz
 lagun bat ekarri;
 aĩn zuben aukeratu
 leku erosua,
 aurrez aurre sasiyan
 zeguen zozua;
 ta onek onla deitu
 ziyon oso moduz,
 esanaz: kuku charra
 asper zaite ojuz;
 ¿zergatikan daukazu
 orlako larriya,
 zital, biyotz gogorra
 alperren argiya?
 ¿non dira zure lanak
 non dezu kabiya?
 zugatik mintzatziak
 aspertu nau iya.
 Kukuak diyo: išo
 berritsu petrala,
 badakizu ondocho
 arrazoi detala;
 eta nai ez badezu
 adi nik esana,
 utziko zaitut oso
 elbarriz etzana.
 Zozuak diyo: utzi

zayozu kantari,
 gogoz gure moduan
 eusteko lanari;
 ez badakizu zer dan
 oraindikan lotsa,
 emango dizut azkar
 arrazoi bat motza;
 umeak azitzeko
 arretarik gabe,
 iñor dezu utzitzen
 zuk egiñen jabe;
 ala ere nai dezu
 arrazoi zuk izan,
 chanchangorriyak zure
 chitak azi ditzan:
 egi onekin zuben
 zozuak astindu,
 jakiña dan bezela
 kukua zan mindu.

.

Egiyazko esanak
 asko ditu mintzen,
 charretik ez dalako
 erraša arintzen;
 kukuaren gisako
 arreta gabiak,
 dira lotsagarrizko
 egiñen jabiak.

JUAN IGNACIO URANGA.